

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea lana eta familia uztartzeko neurri gisa kontratuak egiteko udalaren dirulaguntza programa arautzen duen ordenantza**

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion lana eta familia uztartzeko neurri gisa kontratuak egiteko udalaren dirulaguntza programa arautzen duen ordenantzari (esp.: 2020/98/S999).

Erabaki hori eta horren aurreko guztiak udal idazkaritzan egongo dira ikusgai hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hori behin betiko bihurtuko da.

Amurrio, 2020ko ekainaren 26a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**